

Ebazpena: R 78/2023

Espedientea: 23/2023

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

LAMOPI CONSULTING SL (aurrerantzean, LAMOPI) sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiarekiko (aurrerantzean, BFA) eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazka negatiboari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea nork duen eskumena zergapekoaren 2018-2021 ekitaldietako sozietateen gaineko zerga ordainarazteko eta ikuskatzeko; zergapekoaren iritziz, aipatu urteotan egoitza fiskala non zegoen araberakoa da. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 23/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- LAMOPI 2023. urtera arte egoitza fiskala Bizkaian izan zuen sozietate bat da; horrenbestez, 2018-2021 ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak BFARI aurkeztu zizkion.

2.- LAMOPI sozietateak irizten duenez, 2018an nortasun juridiko bakarra eskuratu zuenetik, sozietatearen zuzendaritza efektiboko egoitza lurralde erkidean da, hau da, sozietatearen bazkide eta administratzaile bakarraren bizilekuan.

3.- LAMOPI sozietateak garaiz kanpoko 2023ko autolikidazioak ZAEari aurkeztu dizkio, sozietatearen egoitza fiskala eta soziala aldatu eta Madrilen kokatu ditu, eta BFari sarrera bidegabeen itzulketa eskatu dio.

4.- Horrez gain, ZAEari eskatu dio BFari inhibitu dadila eskatzeko.

5.- LAMOPI sozietateak gatazka negatibo bat planteatu du, eta 23/2023 espediente-zenbakia esleitu zaio.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Gatazka negatiboari buruz

1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.5 artikulua honako hau dio:

«Beste kasu batzuetan, ezein administraziok bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako hilabeteko epean bi administraziotatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da tributu-betebeharpeko berak inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin. Hilabeteko epea izango du horretarako, artikulua honen 2. apartatuko laugarren lerrokadan aipatzen den eskumengabetasun-aitorpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Era berean, baldin eta administrazioen artean eskumengabetasun-aitorpenik egon ez bada, hiru hilabeteko epea izango du tributu-betebeharpekoak jakinarazpen hori egiteko, administrazio ezberdinei egin zaizkien eskaerak ez onartutakotzat hartu daitezkeen egunetik kontatzen hasita».

Aztertzen ari garen kasuan ez da existitzen gatazka negatiboa planteatzea ahalbidetzen duen premisarik edo egitaterik: bi administraziok aldi berean iriztea zergapeko bakar baten gaineko eskumena dutela edo ez dutela.

Alde batetik, ez da igaro zergapekoak aurkeztutako autolikidaziotik deribatutako sarrera bidegabeen itzulketa ebazteko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 118.2 artikulua aurreikusitako epea. Bestetik, ez dago ZAEAREN inolako egintzarik, ez esplizitua ez inplizitua, zergapekoaren gaineko eskumena dagokiola adieraziz, kontrakoa baizik: aipatu adierazpena bultzatu nahi duen zergapekoaren beraren jarduketa bat dago.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ez onartzea izapidetzeko 23/2023 gatazka, ez baita Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.5 artikulua aurreikusitako balizko kasuetako bakar bat ere.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta LAMOPI CONSULTING SL sozietateari.